

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Itxiokorria

LORETAN LURRIN LORATZEN da sasi-akazia, *Robinia pseudoacacia*, apirilean. Jorrailean. Zura ona eta lorea hobe ematen dituen zuhaitz puska hau inbaditzailea dela dio zenbaitek. Administrazio batzuek bere aurka jotzea sustatzen dute. Ni zalea nau, eta gomendio hauek haizea hartzera! Sasi-akazia kolonizatzaile ona da, bai, beste landare batzuk baino azkarragoa izaki, horretara eboluzionatu baitu. Sustrai indartsuak zabaltzen ditu, lur-azalean gehienak. Hauetatik nonahi sortzen da altsuma eta puja, zuhaitz berriak emanez. Hazia heldu, erne eta landare berriak sortzera itxaron gabe sustraiaietako klon hauen bidez aise asko ugartzen da.

Batzuen trikimailua azalekoa eta beste batzuen sakonekoa. Iraupena eta bizia barren-barreneko lurteetan sakon barnatutako sustraiei zor dioenik ere bada. Itxiokorria, *Ononis spinosa*, besteak beste.

Itxiokorria lekadunen familiakoa da. Zuhaiak txikia ageri bada ere, sustrai izugarriak ditu, gogorak eta luuzeak. Soro eta alorretan hazten da eta garai bateko nekazarien artean zuen fama ondo jaso du bere izenetan: itxiokorria, itxiokgeldia, geldiorria edo



MANUEL GALAN

galdarrona. Lehen hirurek nekazaria eta landarearen arteko lotura azaltzen dute: itxiok horri, itxiok geldi eta geldi horri. Hitz bitan, bakean uzteko landarea. Aitzurkadaka, nahiz eta ondaitzurarekin, landarearena egitea kosta egingo zaiola eta hobe duela bere horretan utzi. Gaur egungo traktoreekin ez dago arazorik eta landare honek ez luke honelako izenik izango.

Katalanez *afrontacavadors* eta *afrontallauradors* deitzen diote, aitzurlaria lotsaraziko duena, alegia, seguruenera ez baitu ipurditik ateratzea lortuko. Galdarrona izenari beste ulerbide bat ematen zaio: golde harro ona. Goldea lurretik ateratzen omen du, goldaketa zapuztuz. Lakoizketak 1888an azaltzen du eta Emilio Guineak bere *Vizcaya y su paisaje vegetal* liburuan 1949an berritu. Gazteleraz *detienebuey* eta *quiebraarados*, portugesez *resta-boi*, frantsesez *arrete-boeuf*, ingelesez *restharrow* antzeko izenetik ugari du; latinez ere *remora aratri* eta *resta bovis* deitzen omen zioten. Goldea bere erretenetik atera edota heldu eta geldiaraziz idi-parea geratzeko gai diren sustraiak ez dira azaren azpiko orriak!



JAKOBA ERREKONDO

Kuiak

Aginagako Etxabal baserriko atari-aurrea ikusgarri egoten da udazkeneko. Urteko kuia (*Cucurbita pepo*) uzta etxeratu eta bana-banaka txukun-txukun garbitu eta dotore asko jartzen dituzte. Urteko egun motzenak iristean azkenari jaten emateko pagotxa. Orain, dagoenerako, ahaztuak ditugu lehengo urtean arto-babarrun soroetako zirrikitu eta bazterretan etorritako kuia tzarrak. Eta, dagoenerako, etorri da datorren udazkenegun parteko bazka ederra izango diren kuia berriak haziko dituzten landareak jartzeko sasoa.